

Platinozko Erregela

«Platinozko Erregela» deitzen diote. Denok ezagutzen dugu Urrezko Arauaren handitasuna («egin besteari zuri egitea nahiko zenukeena»), eta, hain zuzen ere, arau horretatik sortzen da bilakaera unibertsalagotzat har daitekeena: «saiaitu ulertzen zer nahiko lukeen besteak egingo lioketen eta horren arabera jokatuko ezazu».

Hemen, hain zuzen ere, maitasunaren modu benetakoenetako bat antzeman dezakegu: berdinen arteko topaketan, bakoitza bere indar eta ahuleziekin, elkarrekikotasun eta errespetu harreman batean aurkitzea, bizitza bakoitzaren balioa eta duintasuna egoera zailenetan ere aitortuz. Inguruan dugunari arretaz begiratzea da kontua, ezikusiarena egin gabe.

«Lagun hurkoarenganako benetako maitasunak — dio Chiara Lubichek — ez du inolako kalterik egiten»¹. Izan ere, maitatzen badugu, gaitz mota guztiak saihesten ditugu, bai geure buruarekiko, bai gure senidearekiko. Hurkoa maitatzeko lehen urratsa, hain zuzen ere, hari kalterik ez egitea da. Baina erabat maitatzera iristeko maitasunean sortzaile izatea beharrezkoa da: Frantzisko aita santuak gogorarazten zigun ez dela nahikoa hurkoari gaizkia ez egitea, baizik eta ongia egitea aukeratu behar dela, aukera guztiak aprobetxatuz.

Badakigu: gutako inork ezin du eman ez daukana, eta soilik aitortuz dena, noizbait maitatuak izan garela, gure dohainak erabat aska ditzakegu besteenganako.

Nola bizi, orduan, Hileko Ideia hau? Jar dezagun berriro maitasuna gure bizitzaren erdigunean. Maita ditzagun besteak modu zehatzean, sormenez eta irudimenez, eta, batez ere, "barrutik", bihotzetik datorren entzute sakon batez.

Dorisek, Eskoziako neska gazte batek, zera kontatzen digu: «Ettxerik gabeko pertsonentzako aterpe batera egiten ditugun ohiko bisitetan, nirea ez den mundu batean sartzen naiz. Badakit ez duela hainbeste axola zer sentitzen dudan, maitatzea baizik. Egun batean, aurpegian tristura sakona zuen gizon batek aitortu zidan dena amaitzeko prest zegoela, hil ere egin nahi zuela. Entzun besterik ez nuen egin, eta gero ogitarteko bat eta kafe bat partekatu genituen. Eta ulertu nuen entzutea eta bertan egotea maitasuna erakusteko modu bat zela. Joateko unea iritsi zenean, indarrez besarkatu ninduen eta irribarre egin zidan, esanez egiten ari ginena oso garrantzitsua zela, ez berarentzat bakarrik, baita han zeuden guztientzat ere. Maitasunaren indar ikaragarria sentitu nuen. Agian ez nuen "salbatu", baina bere esker onak pozez bete ninduen, eta hori, berez, oso gauza ahaltsua da».

¹C. Lubich, Palabra de vida, 1993ko iraila, Palabras de Vida/2 1991-2006-an) (arg. F. Ciardi), Ciudad Nueva, Madril 2026, 77. or.